



HAUSPOA 2017-2018

Elorrio, 2017ko irailak 18

Familia agurgarria,

Ikasturtea martxan jartzen ari garen honetan, HAUSPOA proiektuaren inguruko albisteak eta egituraketa berria helarazi nahi dizuet, ahal den neurrian, bertoko eskaintza osagarria izan dadin zure seme-alabak astean zehar burutuko dituen beste hainbat eskolaz kanpoko jarduerekin.

Honen harira eta labur labur hauek lirateke aurtengo ikasturtean HAUSPOArekin lotutako zenbait albiste eta berrikuntza:

A) Antolaketari dagozkionak

1. **HAUSPOA arratsaldeak Irailaren 25ean hasiko dira eta Maiatzaren 31an bukatu.**
2. HAUSPOA arratsaldean ordutegiak bere horretan jarraitzen du: 15:00etatik 17:00etara.
3. Ordutegi honetan **15:15etatik 16:15etara irakasgaietako laguntzak** eskainiko ditugu.
4. Proiektu honetan 28 irakaslek, ikasle-ohiak eta nahi duten guraso bolondres guztiak hartuko dute parte modu zuzenean.

B) Honekin batera, aurten **ASTEAZKENAK ere HAUSPOA arratsaldeak izatea nahi dugu** eta arratsalde hauen antolaketa hau izango da:

1. Asteazken hauen ardura ikasle-ohiena eta guraso bolondresena izatea gustatuko litzazuke. Asteazken arratsalde hauek, irakasleriarentzat PRESTAKUNTZA arratsaldeak direnez, zuen laguntza derrigorrezkoa dugu. **Parte hartu nahi baduzu, deitu mesedez 94-6582713 telefono zenbakira eta eman zure izena. Eskerrik asko!!!!**
2. Ikasleek NORBANAKO edo TALDEKAKO lana egitera etortzeko aukera dute. Ikastetxeko baliabideak euren esku utziko ditugu (IKT gelak, Biblioteka,...)
3. Asteazkenetan gure asmoa gurasoek edota kanpo eragileek emandako tailerrak ere eskaintzea litzateke
4. Aukera berriei eta zuen proposamenei ere irekita gaude.

C) Bukatzeko, laguntza-saioez gain, honako TAILER hauek martxan ere URRIAN martxan jarri nahi ditugu:

ASTELEHENETAN	ASTEARTEETAN	OSTEGUNETAN
<ul style="list-style-type: none"> • ROBOTIKA: Robotak programatzen • EKINTZAILETZA tailerra • IRAES 21 	<ul style="list-style-type: none"> • Arte Tailerra • Kirol osasuntsua • Erlajazio tailerra* • Plastika tailerra 	<ul style="list-style-type: none"> • ESKOLA BARATZA • IKASTE TEKNIKAK • SORMEN TAILERRAK: bideoa, antzerkia, eszenografia • ESKOLA AGENDA 21 • Hezkidetzatza tailerra • Musika tailerra
*Egunak alda daitezke ikasle-ohien disponibilitatea dela eta		

Ikus dezakezue, eskaintza zabala bideratzen saiatzen ari gara, batzuk eta besteek, euren lekua aurki dezaten HAUSPOA proiektuaren barruan. Bide honetatik, zuek guraso bezala, beste proposamenei bat izango bazenute eskaintza hau oraindik ere aberatsagoa izan dadin, biziki eskertuko genizuke guri ahal bait lasterren horren berri ematea.

Ohiko legez, Elorrioko Institutuari eskaintzen diozuen laguntza eskertuz, ez adiorik

Josu Etxaburu
 Elorrio Institutuko zuzendaria